

opusdei.org

# Mons Fernando Ocariz prelatu berria

Frantzisko Aita Santuak  
izendatu du

2017 Urt 26

Gaur, arratsalde amaieran,  
Frantzisko Aita Santuak Mons.  
Fernando Ocariz Braña Opus Deiko  
Prelatu izendatu du. Aita Santuak  
egun honetan bertan baieztatu du  
prelatutzako hirugarren  
hautapenezko kongresuak egindako  
hautaketa.

Izendapen honen bidez, Mons. Fernando Ocáriz, orain arte Opus Deiko bikario laguntzaile zena, *san Josemariaren hirugarren ondorengo* bihurtzen da Prelatutzako buru bezala, joan den abenduaren 12an *Mons. Javier Echevarria hil ondoren.*

Mons. Fernando Ocáriz, Gerra Zibilaren ondorioz (1936-1939) Frantzian atzerriratua izan zen familia bateko seme, Parisen jaio zen 1944ko urriaren 27an. Zortzi senideen artean gazteena da.

Bartzelonako Unibertsitatean Zientzia Fisikoetan Lizentziatua (1966) eta Lateranoko Unibertsitate Pontifikalean, Teologian (1969). Teologiako Doktoregoa 1971n lortu zuen Nafarroako Unibertsitatean. Urte horretan bertan apaiztu zen. Apaiztu ondoren, lehen urteetan gazte eta unibertsitarioen apostolutzaz arduratu zen batez ere.

1994tik aurrera Opus Deiko Bikario Orokorra izan da eta 2014an prelatutzaren bikario laguntzaile izendatua izan zen. Azken 22 urte hauetan, aurreko prelatu Mons. Javier Echevarriari lagundu dio 70 nazio baino gehiagotara egin zituen bisita pastoraletan. 1960ko hamarkadan, Teologiaren ikasle zela, *San Josemaría, Opus Deiren Fundatzailearekin* bizi izan zen Erroman. Gaztetandik tenis zalea da, eta oraindik ere kirol hori praktikatzen du.

Datozen egunetan, prelatu berriak kongresistei bere bikario berrien izenak proposatuko dizkie, hala nola datorren 8 urteetan zehar lagunduko dioten kontseiluetako kide berrienak.

eu-es/article/mons-fernando-ocariz-  
prelatu-berria/ (2025 Mar 28)